Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko uztailaren 19a, ostirala — 140 — Viernes, a 19 de julio de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Usurbilgo Haur Eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharrak arautzen dituen ordenantzaren behin betiko onespena ematea.*

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2024ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Haur Eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharrak arautzen dituen ordenantzari hasierako onespena eman zion.

2024ko apirilaren 24ko, 79 zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argituratu zen iragarkia eta espedientea jendeaurrean informazio-tramiten eduki ondoren alegazio bat aurkeztu da.

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2024ko ekainaren 27an egindako bilkuran, Haur Eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharrak arautzen dituen ordenantzari hasierako onespenari aurkeztutako alegazioak erantzun eta behin betiko onarpena eman zion.

Beraz, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak dionaren arabera, Arautegiaren testu osoa argitaratzen da.

Usurbil, 2024ko ekainaren 27a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (5221)

*Usurbilgo Haur Eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharrak.*

1. *Eguneroko harremanak hezitzailearekin.*

Gurasoek, haurra ekarri edo jasotzean, hezitzailearekin eguneroko gorabeherei buruz hitz egin beharko dute.

Hezitzaileek, egunean zehar emandako gertaera garrantzitsuenak adierazi beharko dituzte ere.

Honez gain, hiruhilabetero pedagogi gaiak jorratzeko gela bilera bat egingo da. Dena den, hezitzailearekin kontsultatu ahal izango da haurraren inguruan izan daitezkeen edozein zalantza.

Gurasoek ezin badute haurra jasotzera joan, aldez aurretik abisatuko dute nor joango den hura jasotzera eta honek sinatutako baimena aurkeztuko du.

Haur Eskolako izaera laikoa eta pluralista mantentzeko, guraso eta hezitzaileen iritzi filosofikoa, politikoa edo erlijiosoa errespetatzeko ezin izango da eskolatze-jokaerarik egin.

2. *Haur eskolako ordutegi egutegia.*

Haur eskola egutegia irailetik uztailera izango da, astelehenetik ostiraletara irekia egonez, jai egunak izan ezik, gurasoek kurtso hasieran jasoko dutelarik bete beharreko egutegi zehaztua.

Ordutegia 8:00-16:00ak bitartekoa izango da.

Haurrak gehienez 8 ordu emango du Haur Eskolan.

Aukerako bi ordutegi eskeintzen dira: egonaldi erdia (4 ordu) eta osoa (8 ordu).

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Aprobación definitiva de la ordenanza reguladora de los derechos y obligaciones de las personas usuarias de la Escuela Infantil de Usurbil.*

El Pleno del Ayuntamiento de Usurbil, en sesión celebrada el día 11 de abril de 2024, aprobó inicialmente la ordenanza reguladora de los derechos y deberes de las personas usuarias de la Escuela Infantil.

El anuncio fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 79, del 24 de abril de 2024, y una vez sometido el expediente a información pública se ha presentado una alegacion.

El Pleno del Ayuntamiento de Usurbil, en sesión celebrada el día 27 de junio de 2024, procedió a dar respuesta a las alegaciones presentadas a la aprobación inicial de la ordenanza reguladora de los derechos y obligaciones de las personas usuarias de la Escuela Infantil y a su aprobación definitiva.

En consecuencia, de conformidad con el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases del Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro del Reglamento.

Usurbil, a 27 de junio de 2024.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (5221)

*Derechos y obligaciones de las personas usuarias de la Escuela Infantil de Usurbil.*

1. *Relaciones cotidianas con el personal educador.*

Los padres y madres hablarán con la persona educadora sobre las cuestiones cotidianas al dejar o recoger a su hijo/a.

Las personas educadoras les referirán los hechos más destacables ocurridos durante el día.

Además, cada trimestre, se organizará una reunión de clase para abordar temas pedagógicos. No obstante, podrá consultarse a la persona educadora cualquier duda que pueda surgir en torno al/a la menor.

Si los padres y madres no pudieran ir a recoger al/a la menor, comunicarán de antemano quién acudirá y esa persona deberá presentar una autorización firmada.

Con el fin de mantener la naturaleza laica y pluralista de la escuela infantil, y de respetar las diferentes concepciones filosóficas, políticas o religiosas de familias y educadores/as, no tendrán cabida actitudes de adoctrinamiento.

2. *Horario y calendario de la escuela infantil.*

El calendario escolar abarcará de septiembre a julio y la escuela permanecerá abierta de lunes a viernes, salvo en festivos. Las familias recibirán el calendario escolar concreto al inicio de cada curso.

El horario será de 8:00 a 16:00.

Los/as niños/as permanecerán como mucho 8 horas en la escuela infantil.

Se ofrecen dos horarios: media jornada (4 horas) o jornada completa (8 horas).

EK\CV GAO-I-2024-05221

Matrikula garaian aukeratutako ordutegia ondorengo salbuespen kasuetan soilik aldatzeko aukera izango da: gurasoren batek lana galtzean edo familiaren egoera larriki zailtzen den egoeratan. Gainera, aldaketa 15 egun lehenago eskatu beharko da.

Sarrera-irteeren ordutegia ondorengoa da:

El horario escogido en el momento de la matrícula solo podrá modificarse en casos extraordinarios: si el padre o la madre pierde su trabajo o si la situación familiar se dificulta de forma grave. Asimismo, esos cambios deberán solicitarse al menos 15 días antes.

Este será el horario de entradas y recogidas:

| | *Sarrera goizean* | *Irteera goizean* | *Sarrera eguerdian* | *Irteera eguerdian* | *Irteera arratsaldean* |
|---|---|---|---|---|---|
| 0-1 urte | 08:00-10:00 | 10:45-11:00 | 12:30 | 13:00-13:30 | 14:45-15:00 askaria gabe |
| | | | | | 15:45-16:00 askariarekin |
| 1-2 urte | 08:00-10:00 | 10:45-11:00 | 12:30 | 13:00-13:30 | 14:45-15:00 askaria gabe |
| | | | | | 15:45-16:00 askariarekin |
| 2-3 urte | 08:00-09:30 | 11:45-12:00 | 11:45-12:00 | 13:00-13:30 | 15:45-16:00 askaria gabe |

| | *Entrada por la mañana* | *Recogida por la mañana* | *Entrada a mediodía* | *Salida a mediodía* | *Salida por la tarde* |
|---|---|---|---|---|---|
| 0-1 años | 08:00-10:00 | 10:45-11:00 | 12:30 | 13:00-13:30 | 14:45-15:00 sin merienda |
| | | | | | 15:45-16:00 con merienda |
| 1-2 años | 08:00-10:00 | 10:45-11:00 | 12:30 | 13:00-13:30 | 14:45-15:00 sin merienda |
| | | | | | 15:45-16:00 con merienda |
| 2-3 años | 08:00-09:30 | 11:45-12:00 | 11:45-12:00 | 13:00-13:30 | 15:45-16:00 sin merienda |

Otorduen ordutegia ondorengoa da:

0-1 urte: 11:00, bazkaria eta 15:10, askaria.

1-2 urte: 11:00, bazkaria eta 15:10, askaria.

2-3 urte: 12:00, bazkaria (askaririk ez).

Haurrak medikutara joan behar baldin badu, 8:00-10:00 bitarteko ordutegian eramaten saiatu beharko da. Kontsulta ordua beranduago emanez gero, haurra beranduago etorri daiteke, baina 11:00etatik aurrera etorri ezkero, bazkalduta etorri beharko du. 15:00 etatik aurrera etorriz gero meriendatuta etorri beharko du ere.

3. *Egokitzapen prozesua.*

Egokitzapen prozesua 2-3 astetan zehar burutuko da gutxi gora-behera.

Lehenengo astean, haurra Haur Eskolan 2 ordu inguru egongo da aita, ama edota gertuko pertsona batekin. Denbora hori oso garrantzitsua izango da Eskolako funtzionamenduari buruz (gurasoei hezitzaileak ematen dien informazioa) eta haurraren izaerari buruz: ohiturak, loa, jana (gurasoek hezitzaileari ematen dioten informazioa) hitz egiteko, eta baita guraso-hezitzailearen arteko harreman hastapenak sustatzeko.

Haur bakoitzak bere eguneroko ordutegia egiten hasi aurretik, bigarren astean, haurrak Haur Eskolan egingo dituen orduak luzatu egingo dira, gurasoengandiko banatze prozesua ahalik eta errazen izan dadin. Aste honetan haurrak gehienez 3 edo 4 ordu igaroko ditu bertan.

Bigarren urrats hau eman ondoren, gurasoak edo gertuko pertsonak dagoeneko haurra Haur eskolan utziko du egunero bertan egongo den ordu kopurua beteaz.

Prozesu guzti hau zertxobait alda daiteke haurraren ezaugarri pertsonalak eta adina kontuan izanik, hau da, garapenaren arabera ezberdina izango da.

4. *Gurasoek etxetik ekarri behar dituzten gauzak.*

Haurraren beharrak era egokian asetzeko beharrezkoak diren zenbait gauza nahiko pertsonalak direnez, haur bakoitzak etxetik ekarri beharko ditu.

Este será el horario de comidas:

0-1 años: 11:00, comida y 15:10, merienda.

1-2 años: 11:00, comida y 15:10, merienda.

2-3 años: 12:00, comida (sin merienda).

Si el/la niño/a debe ir al médico, habrá que intentar que sea en horario de 8:00 a 10:00. Si la hora de la consulta fuese posterior, el/la niño/a podrá entrar más tarde, pero si llega después de las 11:00, deberá venir comido/a. Si llega a partir de las 15:00, deberá venir también merendado/a.

3. *Proceso de adaptación.*

El proceso de adaptación durará unas 2-3 semanas aproximadamente.

Durante la primera semana, el niño o la niña acudirá a la escuela infantil unas dos horas al día, con su padre, madre o con una persona de su entorno cercano. Ese tiempo será de vital importancia para hablar del funcionamiento de la escuela (información que el educador o la educadora facilitará) y de las características del niño o de la niña (información que la familia facilitará) sobre costumbres, sueño y comidas, así como para sentar las bases de la relación familia-educador/a.

Durante la segunda semana, antes de pasar al horario habitual, se irán ampliando las horas que el/la niño/a pasa en la escuela infantil, con el fin de que el proceso de separación del padre y la madre sea lo más fácil posible. Durante esa semana, el/la niño/a pasará 3 o 4 horas al día en la escuela como máximo.

Una vez superada esta segunda fase, el padre, la madre o la persona de su entorno cercano dejará al niño o a la niña en la escuela infantil durante las horas que le correspondan.

Todo este proceso podría variar ligeramente en función de las características personales y de la edad del/de la menor, así como según su evolución.

4. *Cosas que la familia debe traer de casa.*

Dado que algunas de las cosas necesarias para satisfacer adecuadamente las necesidades del/de la menor son bastante personales, cada menor deberá traerlas de casa.

EK\CV GAO-I-2024-05221

Honela, gauza batzuk Haur Eskolan utzi beharko dira kurtsoan zehar eta beste batzuk haurraren poltsan ekarri beharko dira egunero.

Haur Eskolan utzi behar direnak:

— Biberoia.

— Esnea, papilla.

— Pardelak, «Toailatxo bustiak», haurraren garbitasunerako.

— Txupetea (Haur Eskolan etxekoa erabili arren, komeni da badaezpada gelan beste bat edukitzea).

Egunero poltsan ekarri behar direnak:

— Aldagaiak: Kamiseta, bodia, kuleroak...

— Aldatzeko arropa: Pijama, galtzak, nikia... Arropa adina eta urte sasoiaren arabera doa.

— Toaila txiki bat.

— Baberoak.

— Arropa zikina sartzeko plastikozko poltsa.

— Jarabea, krema... haurrak behar izango balitu.

Dena den, egunero gurasoek hezitzailearekin duten harremanean gauza horiek zehazten joango dira.

Janariari dagokionez, ezingo da kanpotik ekarri.

*5. Osasunari buruzko araudia.*

Haurra gaixo dagoenean ezingo da Haur Eskolara eraman. Xehetasunak informazio txostenean emango dira ikasturtero.

*6. Ixiltasuna.*

12:30etatik aurrera tinbrea ahalik eta motzena jo eta pasiloetan baju hitz egin behar da, siesta garaia baita.

*7. Haur kopuru eta ratioak.*

Usurbilgo haur eskolak gehienez 92 haur jasoko ditu:

0-1 urte: 12 haur.

1-2 urte: 26 haur.

2-3 urte: 54 haur.

Gela bat irekitzeko gutxieneko haur kopurua ondorengoa izango da:

0-1 urte: 3 haur.

1-2 urte: 5 haur.

2-3 urte: 5 haur.

Haur Eskolako guztizko plaza kopurua hala ere, uneko jaiotze tasa kontuan harturik, beharraren arabera aldatu daiteke espazioak horretarako aukera ematen badu.

Ratioei dagokienez, ondorengoak izango dira:

0-1 urte: 8 haur gelako. Hezitzaileak, 1/5.

1-2 urte: 13 haur gelako. Hezitzaileak, 1/7.

2-3 urte: 18 haur gelako. Hezitzaileak, 1/10.

Eskolan ez badago ratioa betetzeko adina haurrik, adin ezberdineko haurrak gela berean multzokatzeko baimena lortu ahal izango da, jarraian zehazten diren ratioen arabera:

0-1 urte eta 1-2 urte bitarteko haurren unitateak: 1/8. Hezitzaileak, 1/5.

1-2 urte eta 2-3 urte bitarteko haurren unitateak: 1/13. Hezitzaileak, 1/7.

0-1 eta 2-3 urteetako haurrak ezingo dira nahastu.

Así, algunas de esas cosas permanecerán en la escuela infantil durante todo el curso y otras deberán traerse en la bolsa del niño o la niña todos los días.

Deberán dejarse en la escuela infantil:

— Biberón.

— Leche, papilla.

— Pañales y toallitas húmedas para la higiene del niño o la niña.

— Chupete (aunque en la escuela infantil utilicen el de casa, es conveniente tener otro en el aula por si acaso).

Deberán traerse en la bolsa todos los días:

— Mudas: camiseta, body, bragas/calzoncillos, etc.

— Ropa para cambiar: pijama, pantalones, camiseta, etc. Ropa suficiente y adaptada a la estación del año.

— Una pequeña toalla.

— Baberos.

— Una bolsa de plástico para la ropa sucia.

— Jarabe, crema, etc., si fueran necesarios.

No obstante, estas cuestiones se irán concretando en la interacción que las familias tendrán con el/la educador/a todos los días.

En lo que respecta a la comida, no podrá traerse de fuera.

*5. Normativa de salud.*

El niño o la niña no podrá acudir a la escuela infantil si está enfermo/a. El documento informativo de cada curso especificará los detalles.

*6. Silencio.*

A partir de las 12:30 deberá tocarse el timbre lo menos posible y habrá que hablar en voz baja en los pasillos, ya que es el tiempo de la siesta.

*7. Número de niños/as y ratios.*

La escuela infantil de Usurbil tiene una capacidad máxima de 92 niños/as:

0-1 años: 12 niños/as.

1-2 años: 26 niños/as.

2-3 años: 54 niños/as.

El número mínimo de niños/as para abrir una clase nueva será el siguiente:

0-1 años: 3 niños/as.

1-2 años: 5 niños/as.

2-3 años: 5 niños/as.

No obstante, el número máximo de plazas de la escuela infantil podrá modificarse en función de las necesidades, teniendo en cuenta la tasa de nacimientos de cada momento, si el espacio lo permite.

En lo que respecta a las ratios, serán las siguientes:

0-1 años: 8 niños/as por clase. 1/5 educadores/as.

1-2 años: 13 niños/as por clase. 1/7 educadores/as.

2-3 años: 18 niños/as por clase. 1/10 educadores/as.

Si la escuela no tuviese niños/as suficientes para llenar la ratio, podrá obtenerse permiso para agrupar en una misma clase niños/as de diferentes edades, en función de las ratios indicadas a continuación:

Unidades de niños/as de 0-1 años y 1-2 años: 1/8. 1/5 educadores/as.

Unidades de niños/as de 1-2 años y 2-3 años: 1/13. 1/7 educadores/as.

Los niños/as de 0-1 años y de 2-3 años no podrán agruparse.

EK\CV GAO-I-2024-05221

Haurrak adin ezberdineko gela berean multzokatzeko aukera izanez gero, lehentasuna edukiko du multzokatze honek gela berriaren sormenaren gain, betiere adin horretako gela osoa sortzeko aukeraz ez balego. Beraz, gela osoa sortzeko aukera egonez gero gela horrek lehentasuna edukiko du. Aldiz, adin bereko gela bat betetzeko haur kopurua ez balego, adin ezberdineko haurrak nahastutako gela sortu beharko litzateke.

*8. Matrikulazioa, itxaron zerrenda eta baja.*

* Matrikulazioa.

— Apirilean egingo da. Epetik kanpo matrikulatzeko aukera emango da ere betiere plazak izanez gero. Matrikulazio epean izena eman duten haurren kopurua eskeinitako plazak baino handiagoa denean, jarraian adierazten den lehentasun-hurrenkerareka jarraituko da:

1) Usurbilen erroldatuta dauden haurrak.

2) Kasu berezi edo premiazkoak, halakotzat ulertuz:

a) Haur berezia: duen egoera fisikoaren edo psikikoaren eraginez mota honetako dinamikatan txertatzea gomendatzen denean.

b) Egoera familiarra: egoera hori sozioekonomikoa izan edo familiarra izan, tratamendu berezi bat eskatzen duenean.

3) Haurraren anai-arrebaren bat Haur Eskolan lehendik izena emanda dagoenean.

4) Haurraren gurasoak lan aktiboan daudenean, edo guraso bakarreko familiak baldin badira (alarguna, banandua, dibortziatua, guraso bakarrekoa, eta abar), guraso hori lan aktiboan dagoenean.

5) Haurraren gurasoetako bat lanean eta bestea langabezia-egoeran baina lan bila dagoenean.

6) Haurraren gurasoetako bat lan-egoera aktiboan eta bestea ikasketa ofizialak egiten ari denean.

7) Haurraren aita eta ama lanean ez daudenean, baina horietako bat langabezia-egoeran lan bila ari denean.

8) Haurraren aita edo ama lan-egoeran dagoenean, eta bestea lan bila ari ez denean.

9) Haurra Usurbilen erroldatuta ez badago ere, gurasoetako baten lantokia Usurbilen dagoenean.

Baldintza horiek egiaztatu egin beharko dira, kasuan kasu, eskudunak diren erakunde publikoek edo langile teknikoek igorritako agirien edo txosten teknikoen bidez. Aurreko irizpide horiei dagokienez, egoera berdinean dauden eskatzaileen artean, diru-sarrera txikienak dituztenei emango zaie lehentasuna. Haurren bat arestian aurreikusitako kasuetan sartzen ez bada ere Udalak arreta berezikotzat har ditzakeen arazoak dituela ulertzen badu, Udalak lehen aipatu beste irizpide edo balizkoen gainean lehentasuna eman ahal izango dio kasu horri.

— Haurra ez da onartua izango baldin eta gurasoak jaiotza baimenaz gozatzen ari badira edota haurra zaintzeagatiko eszedentzia egoeran egon eta arrazoi horrengatik laguntza ekonomikoa jasotzen badute. Hala ere, matrikula egin ahal izango dute lanpostura itzultzeko data baino lehenago, dagokion enpresa ziurtagiriarekin egiaztatuta.

— Oraindik jaio ez diren haurrak inskibratzeko aukera egongo da.

— Haur Eskolan hasterakoan, haurrek 16 aste beteta izan beharko dituzte.

* Itxaron zerrenda.

Haur eskolan onartu ez diren haurrekin aurrez aipatutako onarpen-irizpideen araberako zerrenda bat egingo da, hurrenkera hori aplikatuz ikasturtean zehar plaza libreren bat gertatzen denean.

En caso de contar con la posibilidad de agrupar a niños/as de distintas edades en una misma clase, esa agrupación tendrá prioridad respecto de la creación de una nueva clase, siempre que no hubiera posibilidad de crear una clase completa de esa edad. Por lo tanto, si existiera la posibilidad de crear una clase completa, la creación de esa clase tendría prioridad. No obstante, si no hubiese niños/as suficientes para crear una clase completa de la misma edad, habría que crear una clase con niños/as de edades distintas.

*8. Matriculación, lista de espera y baja.*

* Matriculación.

— Se realizará en abril. Se ofrecerá la posibilidad de matriculación fuera de plazo, siempre que haya plazas. Cuando el número de niños/as inscritos durante el periodo de matriculación sea superior al número de plazas ofertadas, se seguirá el orden de prioridad indicado a continuación:

1) Niños/as empadronados/as en Usurbil.

2) Casos especiales o urgentes, entendiendo como tales:

a) Niño/a especial: cuando por su situación física o psíquica se la haya recomendado introducirse en dinámicas de este tipo.

b) Situación familiar: cuando la situación socioeconómica o familiar requiera de un tratamiento especial.

3) Niños/as que tengan algún hermano/a inscrito en la escuela infantil.

4) Niños/as cuyos dos progenitores sean trabajadores en activo o, en caso de familias monoparentales (viudo/a, separado/a, divorciado/a, monoparental, etc.), niños/as cuyo padre o madre sea trabajador en activo.

5) Niños/as con uno de los progenitores en activo y el otro en situación de desempleo pero buscando trabajo.

6) Niños/as con uno de los progenitores en activo y el otro cursando estudios oficiales.

7) Niños/as con ambos progenitores inactivos, pero con uno de ellos en situación de desempleo y buscando trabajo.

8) Niños/as con uno de los progenitores en activo y el otro sin buscar trabajo.

9) Niños/as no empadronados en Usurbil, si el padre o la madre trabaja en Usurbil.

Esas condiciones se acreditarán mediante certificados e informes técnicos emitidos por las instituciones públicas y personal técnico competente en cada caso. En lo que respecta a los criterios anteriores, en caso de igualdad de condiciones entre las personas solicitantes, tendrán prioridad aquellas con menor renta. Si algún niño o niña no encajase en los casos arriba mencionados, pero el Ayuntamiento entendiese que el caso requiere de atención preferente, podrá darle prioridad por delante de los criterios y supuestos arriba indicados.

— No se aceptarán menores cuyos progenitores estén disfrutando del permiso de nacimiento o que se encuentren en situación de excedencia por cuidado de menores y reciban una ayuda económica por ese motivo. No obstante, podrán realizar la matrícula con anterioridad a reincorporarse al trabajo, con el correspondiente certificado de la empresa.

— Existirá la posibilidad de inscribir niños/niñas que todavía no hayan nacido.

— Todos los niños y niñas deberán tener las 16 semanas cumplidas en el momento de iniciar la escuela infantil.

* Lista de espera.

Se elaborará una lista de espera con arreglo a los criterios de admisión arriba indicados con todos los niños y niñas que no hayan sido admitidos, aplicando ese orden de prelación en caso de que quedase alguna vacante a lo largo del curso.

EK\CV GAO-I-2024-05221

Plazaren bat libre geratuz gero zerrendako lehenarekin jarriko da harremanetan Haur Eskola eta aste bat emango zaio familiari erantzuteko. Lokalizatu ezin bada edota plazari espresuki uko egiten badio, itxaron-zerrendatik kanpo geratuko da eta plaza zerrendan hurrengoari eskeiniko zaio.

Bajarik gertatuko ez balitz, haur horiek berriro eman beharko lukete izena, beste ikasturterako izena emateko epe berria zabaldutakoan, eta galdu egingo dituzte aurrez hartutako eskubideak.

Erreserba kuota bat egongo da ere, kuotaren zenbateko erdiaren zenbatekoarekin eta irailetik aurrera haurra hasten den hilabetea hasi arte ordainduko dena. Aldiz, jangela kuota haurra Haur Eskolan hasten den hilabetetik aurrera ordainduko da.

Erreserba 8 hilabetez gehienez gordeko da, itxaron zerrenda egongo balitz plaza bat ikasturte erdia baino gehiago erabili gabe egotea ekiditeko.

* Baja.

Baja eskaera idatziz aurkeztu beharko da hilabete berria hasi baino 10 egun lehenago, bestela hilabete horretako kuota mantendu egingo da.

Justifikatu gabeko hutsa 20 egun edo gehiagokoa izanez gero edo 2 hilabetetako kuota ez ordaintzeak, plaza horren galera suposatuko du automatikoki, plaza hori itxarote zerrendan lehenengo postuan dagoen haurrari esleituz.

Baja ekainean izanez gero, ekaina eta uztaila ordaindu beharko da.

*9. Prezioa.*

Ordenantza Fiskaletan zehaztutakoa.

Hobariei eta anai-arreben prezio eta baldintzei dagokienez, Udalean indarrean dauden Ordenantzek arautuko dituzte.

*10. Gobernantza.*

Udaleko hiru ordezkarik, lizitatzailearen hiru ordezkarik (ZTko bi kide bat eta Haur Eskolako langile bat) eta Haur Eskolako guraso ordezkariak osatuko du.

Bileren maiztasuna 3-4 hilabetekoa izango da: ikasturtea hasi baina lehen, ikasturtean zehar eta ikasturtea amaitu baina lehen.

Al quedar una plaza libre, la escuela infantil se pondrá en contacto con la primera familia de la lista y le concederá un plazo de una semana para dar una respuesta. Si no pudiesen localizarla o la familia renunciase expresamente a la plaza, quedarán fuera de la lista de espera y la plaza se ofrecerá a la siguiente familia de la lista.

En caso de darse de baja, el niño o la niña en cuestión deberá inscribirse de nuevo, una vez abierto el plazo para la curso siguiente, y perderá todos los derechos adquiridos previamente.

También habrá una cuota de reserva, equivalente a la mitad de la cuota ordinaria, que deberá abonarse a partir de septiembre y hasta el mes en el que el niño o la niña se incorpore. Por el contrario, la cuota de comedor solo se abonará a partir del mes de incorporación del niño o la niña.

La reserva podrá mantenerse durante un máximo de 8 meses, para evitar que una plaza esté vacante más de medio curso, en caso de que haya lista de espera.

* Baja.

La solicitud de baja deberá presentarse por escrito 10 días antes del inicio del nuevo mes. De lo contrario, se cobrará también la cuota de ese mes.

La ausencia injustificada durante 20 días o más o el impago de la cuota durante 2 meses comportarán la pérdida automática de la plaza, que se le asignará a la familia que se encuentre en el primer puesto de la lista de espera.

Si la baja tuviese lugar en junio, habrá que abonar los meses de junio y julio.

*9. Precio.*

El estipulado en las Ordenanzas Fiscales.

En lo que respecta a bonificaciones y precio de hermanos/as, se regirán por lo establecido en las Ordenanzas municipales en vigor.

*10. Gobernanza.*

Recaerá sobre tres representantes municipales, tres representantes de la empresa licitadora (dos miembros del equipo directivo y una persona trabajadora de la escuela infantil) y un representante de las familias.

La frecuencia de las reuniones será una vez cada 3-4 meses: antes de comenzar el curso, durante el curso y antes de finalizar el curso.

EK\CV GAO-I-2024-05221